

Nork: [Asier Perez-Karkamo](#) -Ira 26, 2018

LEHEN SOROSPEN IKASTAROA EGINGO DU DYA GIPUZKOAK



Herritar orori zabalik dago ikastaroa

DYA Gipuzkoak Oinarrizko Lehen Sorospen ikastaroa egingo du urriaren 1etik 5era Hondarribian, Soroetagain kaleko egoitzan, 19:00etatik 21:00etara. Hamar ordu izango dira guztira, alde teorikoa eta praktikoa lantzeko: "Ikastaro honen egitarauak egunerokoan topa genitzakeen arriskurik nagusienak lantzen ditu, eta hauei nola aurre egin eta nola ebatzi: bihotz birika suspertzea, zauriak, haustura, erredurak, eta abar", azaldu du DYAk.

Matrikularen kostua 40 eurokoa da, eta leku mugatuak dira. Izena emateko, edo zalantzak argitzeko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.



[DYA](#) [LARRIALDIK](#) [OSASUNA](#)

Ez dago iruzkinik